

Diru-iturriak

Bezeroek gure produktua erosteagatik diru kantitate handi bat ordaindu beharko dute, gure esku mekanikoak ekoizpen-kostu handiak dituelako, eta, era berean, inportatua izango delako. Gainera, eskuaren prezioa eroslearen desgaitasun fisikoaren arabera izango da, bere behar espezifikoetara egokitu beharko delako eskua. Beharra gero eta handiagoa izan, eskuaren kostuak gora egingo du. Dena den, bezeroak prezio altuegigatik ez ordaintzea ekiditeko, hainbat irtenbide pentsatu ditugu.

Lehenik eta behin, eskuaren kostuak gutxitzeko Eusko Jaurlaritzari diru-laguntzak eskatuko dizkiegu, eta osasun-sistema publikoarekin harremanetan jarriko gara, gure produktua behar dutenen artean eskain dezaten. Horrela, gure produktua eskuragarriagoa izango da gure bezeroentzat, eta, era berean, gure esportatzaileentzat (Kinova) errentagarria izango da.

Bestalde, etorkizunean, dena ondo joango balitz, eskua hobeto saltzeko eta ezagutarazteko *app* bat sortzeko asmoa dugu. Honekin, gure diru-sarrerak handitzea espero dugu, gure produktua ezagunagoa izango delakoan, eta, beraz, jende gehiago egongo da erostekotan.

Honekin batera, esan beharra dago langileok ez dugula soldata finkorik izango, eta komisiotatik lortuko ditugu irabaziak, gure aliatuarekin lortzen dugun irabazien portzentai bat eramango dugu ere.

Horrela, gure produktuak arrazoizko prezioa izango duela uste dugu, bezeroarentzat ez baita altuegia izango, eta enpresarentzat irabaziak bermatzen dituela uste baitugu.